

DATU PERTSONALEN BABESA

LEGE-INFORMAZIO GEHIGARRIA - EKITALDIAK

Datuak babesteari buruz indarrean dagoen araudiak ezarritakoa betez, honako bi arau hauek osatzen dute:

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (aurrerantzean, «DBEO»).
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa (aurrerantzean, «DBLO»).

Ibercajak datu pertsonalak tratatuko dituen legezko baldintzen berri ematen die interesdunei, honako atal hauen arabera:

1. Nor da nire datuen tratamenduaren Arduraduna?

IBERCAJA BANCO S.A. (aurrerantzean, «Ibercaja»)

Plaza Basilio Paraíso 2 – 50008 Zaragoza

Datuak Babesteko Ordezkararen kontaktua: dpo@ibercaja.es

2. Datu pertsonalen zer kategoria tratatuko ditu Ibercaja-k?

DBEOn eta DBLOn aurreikusitakoaren arabera, Ibercajan zure datu pertsonalak tratatuko ditugu, jarraian azaltzen den moduan.

Gure jarduera guztietarako zure datu pertsonal guztiak erabiliko ez ditugunez, dokumentu honetan zehar kasu bakoitzean tratatu beharko ditugun datu pertsonal moten berri emango dizugu:

INTERESDUNARENGANDIK LORTUTAKO DATUAK	
Kategoria	Datu pertsonalak
Identifikazio-datuak	Izen-abizenak, argazkia, sexua, bizilekua, NANA, pasaportea edo AIZa, jaiotze-data, nazionalitatea, eta ahotsari eta irudiari buruzko datuak.
Harreman-datuak	Posta arrunt, telefono eta posta elektroniko bidez harremanetan jartzeko informazioa.

3. Zertarako eta zein legitimaziorekin tratatzen ditu Ibercaja-k nire datu pertsonalak?

Jarraian, zure datu pertsonaletan egingo ditugun tratamenduak azalduko dizkizugu, baita datu horiek tratatzeko lege-oinarria ere, kasu bakoitzean emango diogun erabileraren arabera.

a) **Interes legítimo bidez egindako tratamenduak**

- Ibercaja-n zure datu pertsonalak tratatuko ditugu, egiten diguzun edozein eskaera edo kontsultari erantzun eta izapidetu ahal izateko. Zure datuak tratatuko ditugu bereziki eskatzen diguzun bakoitzean laguntza emateko, bai gure webgunearen bidez, baita gure harremanetarako telefonoen bidez ere. Adibidez, gure produktu edo zerbitzuei edo bulego eta kutzazainen kokapenari buruzko edozein informazio. Kasu honetan, uste dugu Ibercaja-n interes legitimoa dugula ematen diguzun informazioa erabiltzeko, egiten dizkiguzun kontsultei erantzun ahal izateko.

Ibercaja-k tratamendu hori neurtzeko proba bat egin du, araudiak eskatzen duen moduan. Proba horren ondorio gisa, eta laburbilduz, ulertzen dugu (i) zure pribatutasunari ez diogula kalterik egiten Ibercaja-n zuk egin dizkiguzun eskaerei erantzuteko dugun interesagatik; (ii) zure datuak zure kontsulta edo iradokizunei erantzuteko baino ez dira erabiliko.

- Zenbait kasutan, promozioak, zozketak eta ekitaldiak ere antolatuko ditugu, parte har dezazun. Jarduera horietakoren batean parte hartzen duzunean, zure datu pertsonalak erabili beharko ditugu zozketan egindako partaidetza (hala badagokio, zurekin harremanetan jartzeko eta dagokizun saria emateko) edo ekitaldian egindako izen-ematea kudeatzeko. Helburua da zurekin dugun interakzioa hobetzea eta aprobetxa ditzakezun onura jakin batzuk zure eskura jartzea, zenbait produktu zozketatuta eta egiten ditugun ekitaldietara gonbidatuta.

Tratamendu horretarako, Ibercaja-k neurtzeko proba bat ere egin du. Ondorio gisa, uste dugu tratamenduak ez diola eragiten pribatutasunerako duzun eskubideari; izan ere, (i) zozketetan, ekitaldietan edo lehiaketetan parte hartzea borondatezkoa da, eta, hala egiten ez baduzu, ez da inolako kalterik sortuko. (ii) Zozketetan edo ekitaldietan izena eman nahi baduzu soilik tratatuko dira zure datuak, eta ez duzu inola ere parte hartu beharko.

Nolanahi ere, ekitaldi, zozketa edo lehiaketei aplika dakizkiekeen termino zehatzak dagozkien lege-oinarrietan zehazten eta adierazten direnak izango dira, eta horien berri emango zaizu parte hartzea edo izena ematea erabaki aurretik.

Tratamenduaren objektu diren datuak: Identifikazio- eta harreman-datuak.

b) **Legezko betebeharrak baten betetzea**

Ibercaja-k zure datuak tratatu beharko ditu une bakoitzean eska dakizkiokeen legezko betebeharrak betetzeko. Nagusiki, eta besteak beste, arau hauetan aurreikusitakoez ari gara:

- 1/2007 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 16koa, **kontsumitzaileak eta erabiltzaileak defendatzeko Lege orokorraren** eta beste lege osagarri batzuen testu bategina onartzen duena.

- **3/2018 Legea, abenduaren 5koa, datu pertsonalak babesteari buruzkoa, eta 2016/679 Erregelamendua (EB)**, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

Edozein epaitegik edo auzitegik, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoek edo beste edozein agintari edo administrazio publiko eskudunek eskatzen badigu, zure datu pertsonalak ere eman beharko genizkioke, legez behartuta gaudelako.

Tratamenduaren objektu diren datuak: Identifikazio- eta harreman-datuak.

c) Interesdunaren adostasuna

Datuak babesteko araudiak aurreikusten dituen baldintzak betetzeko asmoz, Ibercaja-k zure baimena eskatuko dizu Ibercaja-n, Talde bereko erakundeetan ([informazio gehiago](#)) edo Ibercaja Banku Fundazioan eskaintzen ditugun produktu edo zerbitzuei (finantzarioak nahiz ez-finantzarioak) buruzko informazioa bidaltzeko, merkaturatzen ditugun aseguruak barne. Bitarteko elektronikoa edo arrunten bidez bidaliko da informazioa, hala nola posta arrunta, telefonoa, SMS, posta elektronikoa, istanteko mezularitza-sistemak edo unean uneko beste edozein bitarteko elektronikoa edo telematiko.

Baimena ematen baduzu, merkataritza-komunikazio horiek guk bidaliko dizkizugu, Ibercaja Bankuak.

Horretarako, Ibercaja-k baimen-eskaera bat egingo dizu, onar dezazun. Jakina, jakin ezazu edozein unetan ken dezakezula zure baimena, inolako kalterik eragin gabe (baina horrek ez du eraginik izango zure datuekin ordura arte egin dugun erabileraren legimitatean, ez baitu atzeraeraginik).

Tratamenduaren objektu diren datuak: Identifikazio- eta harreman-datuak.

d) Etorkizuneko beste erabilera batzuk (Ibercaja Bankuaren bezero izatera iristen bazara)

Azkenik, jakin behar duzu gurekin edozein kontratu sinatzen baduzu eta Ibercaja-ko bezero bihurtzen bazara, kontratatatu diguzun produktu edo zerbitzuari aplikagarri zaion pribatutasunari buruzko legeko informazio espezifiko guztia emango dugula bertan.

4. Norbaitekin partekatuko al ditugu zure datu pertsonalak?

Gu gara, hots, "Ibercaja Banco S.A.", zure datuak jaso, erabili, kontserbatu eta ezabatzeko legeko arduradunak, hala dagokionean.

Beraz, eta oro har, zure datuak Ibercaja-n bakarrik erabiliko ditugu, eta ez dizkiogu beste inori lagako; legez derrigorrezkoa denean bakarrik egingo dugu (adibidez, estatuko segurtasun-indar eta -kidegoei edo epaitegi eta auzitegiei), berariaz baimendu diguzunean, edo zure nahiz Ibercaja-ren interes legitimo bati erantzuten dionean (behar bezala jakinaraziko dizugu aldez aurretik).

Kasu horietatik kanpo, ez diogu hirugarrenei jakinaraziko ematen diguzun informaziorik.

5. Zenbat denboraz gordeko ditugu zure datuak?

Ibercaja-n ematen diguzun informazioa soilik gordeko dugu eskatu diguzuna kudeatzeko eta erantzuteko beharrezkoa den denboran, edo merkataritza-komunikazioak bidaltzeko baimena kentzen diguzun arte.

Horren ondoren, zure datuak behar bezala blokeatuta baino ez ditugu gordeko, epaitegi eta auzitegien esku jartzeko erreklamazioen bat egonez gero. 5 urtez gordeko ditugu, gehienez, Kode Zibilaren 1.964.2 artikulua, akzio pertsonalen preskripzioari buruzkoak, lege ezarrita gisa.

6. Zer eskubide dituzu datuak ematen dizkiguzunean?

Legeak eskubide batzuk aitortzen dizkizu, ezagutu behar dituzunak eta zure pribatasuna babesteko balia ditzakezunak. Batez ere, eskubide hauek dituzu:

1. Ibercaja-n zure datu pertsonalak tratatzen ari garen ala ez baieztatzea eta, kasu horretan, datuok (a) atzitu, (b) okerrak direla uste baduzu horiek zuzentzeko eskatu edo, hala badagokio, (c) ezabatzeko eskatu, besteak beste, beharrezkoak ez direla uste baduzu, kontuan hartuta zertarako eman zenizkigun.
2. Egoera jakin batzuetan, zure datuen erabilera mugatzea eskatu dezakezu, baita datuak erabiltzen jarraitzearen aurka egitea ere. Kasu horretan, datuok erabiltzeari utziko diogu, premiazko arrazoi legitimoak daudenean edo erreklamazioak egin edo haien aurrean defendatu behar denean izan ezik.
3. Zure informazio pertsonala erabiltzen badugu jokabide-profilak egiteko eta modu erabat automatizatuan egingo bagenu, eskubidea izango duzu horren berri izateko, gure agenteetako edozeinen esku-hartze pertsonala eskatzeko, profil horietan oinarritutako edozein erabaki aurkaratzeko edo, besterik gabe, zure ikuspuntua adierazteko.
4. Halaber, eman dizkiguzun datuen eramangarritasuna eskatzeko eskubidea izango duzu, erabilera komune eta irakurketa mekanikoko formatu batean.
5. Jakina, edozein unetan zure datu pertsonalak erabiltzeko eman dizkiguzun baimen espezifikoak kentzeko eskubidea duzu.
6. Amaitzeko, edozein erreklamazio aurkez dezakezu Ibercaja-n edota Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan (datuen babesaren arloan eskumena duen kontrol-agintaritza baita), batez ere eskubideren bat erabili baduzu eta lege ezarritako baldintzetan erantzun ez badizugu.

Eskubide horiek erabili ahal izango dituzu (zure nortasun-agiri nazionalaren kopia bat erantsita, edo, hala badagokio, agiri ofizial baliokide bat erantsita) posta elektronikoki bidez, helbide honetara zuzenduta: dpo@ibercaja.es, Datuak Babesteko Ordezkarari zuzendutako posta arrunt bidez edo atal honetan adierazitako helbidera idatzita: "1.Nor da nire datuen tratamenduaren Arduraduna?", edo inprimaki honen bidez: <https://www.ibercaja.es/forms/ejercicio-de-derechos/>.

7. Nor da Ibercaja-ko Datuak Babesteko ordezkaria?

Ibercaja-n pertsona bat izendatu dugu, Datuak Babesteko Ordezkaria, zure pribatutasuna eta intimitatea babesteko, baita Espainiako zein Europako datu pertsonalak babesteari buruzko araudiaren legeko eskakizun guztiak betetzen ditugula bermatzeko ere.

Pertsona hori arduratuko da zure datu pertsonalei buruz behar duzun informazio guztia emateaz. Harekin harremanetan jarri behar baduzu, helbide elektroniko honen bidez egin dezakezu: dpo@ibercaja.es.

Azken eguneratzea: 2022ko azaroaren 10a